

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zozorbatuta

AMAICALANDARIETA PARAJEA omen da Aranon. Hamaika horietatik zeini heldu eta tira? Garaikoari. Ipinabarren garaikoari, alegia. XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan ipinabarren basoetako egurraz egiten ziren ontziak hiru lanetarako ziren, batik bat bi eta hiru: bakailaoaren eta balearen arrantzarako, merkataritza garraiorako eta gudarako. Bazuten, baita, bestelako lanik ere. Zumaiamiko gaztelu-eliza nagusia lekuko: ontziak motor zituen garaiko ekonomiak uraparretaratutako burges berriek egindako bokaziozko dohaintza pareta bertan. Bietan erlijiozko margo garaikoenetan emaileak berak azaltzen dira, lotsagabe



INAKI AGUIRRE

asko. Batean, bere salgaiekin batera Flandriara joan zen Juan Perez Elorriaga almirantea, han onen artean hoberenetakoa izan behar zuen margolari bati bere familia santu artean margotuarazi zion triptiko batean. Hortxe dago elizan ikusgai. Margo honen aipagarrietan lehena "irudien ugaritasuna eta aberastasuna nahiz arropa eta oihaletan azaltzen den handinahia" dela irakurri dut. Bestean, Errege Katolikoak

babesteko Portugalgo itsasontziak Gibraltargo gudan txikitu zituen Juan Martinez de Mendarok emanean, bera ere santu artean ageri da errezoan, guda hartan galdu zuen semearen alde, agian. Baita ere flandriar estilokoa omen den honoko honen azpiko aldean, 1475eko apirilaren 4ko borroka hartako itsasontziak dotore azaltzen dira, bandera, bela eta abarrez harro apainduta. Arraroak ziren, garai hartan, ontzien margoak bezala jendearen erretratuak. Ur gaineko bitsetan itsasontziak, ekonomia eta jendea.

Erregeengandik hurbilegiko bitsetan jendea zozorbatu eta, jakina, usteldu. Bitsak ezeri eusten ez dionez, itsasontziak hondoratu eta ekonomia urdindu. Eskerrak bitsik gabeko itsasoetako arrantzontziei, Zumaiami aldameneko Zestoako Ibañarrietako basoetako zurezko arte-lan horiei. Flandriako eskolakoak sona, baina geurean erriotako arotz eta zurgin haiena bai artea. Eta arrantzaleena. Bakailao gaziak eta balearen lumerak edo sainak elementia bat lagun mantendu zuten gerora ere.

## Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, laranjondoa laranjaz beterik dugu. Batzuk oso altu daude eta hartzeko adarrak erraz apurtzen dira. Beraz, inausi beharko genuke, baina inoiz ez dugu egin, eta inork ez daki etxean noiz eta nola egiten den. Aurten inoiz baino fruitu gehiagorekin dago, eta ez genioke kalterik egin nahi. Nola egin dezakegu? Eskerrik asko. Laura Moragues (Jatabe).

Kaixo Laura. Zerorrek duzu erantzuna. Inoiz ez duzu inausi eta, ondorioz, laranjaz lepo beteta arbola. Inausten baduzu, arbolak energia asko bideratuko du inausitako adar horiek berreskuratuzera, eta ondorioz laranja gutxi eta urte batzuen buruan oraingo egoera berebean. Laranjondoa hemen ez da airoski bizi, justu samar bai, eta lehenaz gain inaustean zauriak egiten zaizkio. Bi gaitz erdik osoa egiten dute. Nire aholkua: hautsitako adarrak bakarrik inausi, zauria txukutzeko. Laranjak biltzeko adarrak ez okertu, fruta goitik biltzeko tramankuluak badira... Laranja on.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea  
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko  
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberrri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala  
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241  
[luberrri@luberrri.biz](mailto:luberrri@luberrri.biz) • [www.luberrri.biz](http://www.luberrri.biz)